

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa







BARRIALDE-GALDAKAO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACION SANITARIA INTEGRADA BARRIALDE-GALDAKAO



2024KO MEMORIA

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko
jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa



AURKIBIDEA

SARRERA 3

BARNE FUNTZIONAMENDUA 2024AN 4

HELBURUAK ETA 2024AN EGINDAKO EKINTZAK 6

2024AN PROTOKOLOAREN BARRUAN ARTATUTAKO EMAKUMEAK 19

2024AN IDENTIFIKATUTAKO AURRERAPENAK, LORPENAK, ZAILTASUNAK ETA ERRONKAK 25

1. SARRERA

Durangeldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloak urte hauetan egin duen ibilbideari begiratuta, lehendik egina dagoen bidea hobetzeko ekintzak garatu eta neurriak hartu dira.

Memoria honen helburua urtean zehar landutako ekintzen eta helburuen berri ematea da; baita aldi honetan lanerako izan dugun ikuspegiaren berri ematea ere. Halaber, gogoetarako espazio bat ere eskaintzen du, 2024an lortu diren aurrerapausoak eta identifikatu diren erronkak direla eta. Horrez gain, barne-analisirako tresna gisa balio dio Koordinazio Orokorreko Mahaiari eta, hala, lagungarri da zer hobetu behar den identifikatzeko eta hurrengo urterako plangintza hobetzeko.

2024rako helburuak 2023 amaieran eta aurtengo urteko hasieran diseinatutako plangintzan ezarri ziren. Plangintza horretan, araudietan izandako azken aldaketak ezartzeko lanarekin jarraitu behar dela identifikatu zen, eta protokoloan txertatu behar dira, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimentzako arreta hobetu asmoz.

Aurten, prozesu jarraitua egin da mahai teknikoetan, eta arreta sexu-indarkerietan sakontzeko lanean jarri da batik bat. Testuinguru horretan, sexu-askatasunaren berme integralari buruzko legea eta horren aldaketak berrikusi eta arreta integraleko zentro berriak ezagutu ziren, araudi horretan agintzen dena betetzeko martxan jarri dira eta. Aldi berean, Koordinazio Orokorreko Mahaiak protokolo ardatz estrategikoak zaintzen jarraitu du, eta baliabideetan gertatutako aldaketetara egokitu da. Zenbait kasutan, helburuak doitu egin behar izan ziren egungo lehentasunekin lerrokatzeko.

Aurtengo aldaketa esanguratsu bat Durangon sortu duten zerbitzu berria da, indarkeria matxistaren aurrean arreta emateko. Hala, jada abian ziren funtzionamendu-dinamiketan txertatu behar izan da. Baliabideek artatzen dituzten emakumeei buruzko datuak biltzea beste lehentasun garrantzitsu bat izan da.

Ekintza horiek guztiak indarkeria matxista desagerrarazi bidean aurrera egiteko gauzatu dira, giza eskubideen urraketa bat dela ulertzen baita. Horrek esan nahi du gizarteko baliabide eta sektore guztien konpromisoa behar dela, baita administrazio publikoena ere, erantzun integrala eta eraginkorra bermatzeko.

Aurreko urteetan bezala, Memoria hau Koordinazio Orokorreko Mahaiak egin eta Koordinazio Teknikoko Mahaiak aztertu du, eta ondoren, Koordinazio Politikoko Mahaiari aurkeztu dio.

Koordinazio Orokorreko Mahaiak

Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

2. BARNE FUNTZIONAMENDUA 2024AN

II. Protokoloak erakundeen arteko koordinaziorako zenbait maila ezartzen ditu. **Instituzioen arteko koordinazioa** da nagusia, horretarako diseinatutako Koordinazio Mahaiei bidez egin beharrekoa. 2024an **27 bilera** egin dituzte mahai horiek:

		
KOORDINAZIO OROKORREKO MAHAIA (KOM)	KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA (KTM)	KOORDINAZIO POLITIKOKO MAHAIA (KPM)
Parte-hartzaileak: inplikaturako udaletako berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoak.	Parte-hartzaileak: indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzuetako teknikariak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoak.	Parte hartzaileak: udal desberdinetako politikariak, mankomunitateko presidentea, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren arduradunak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoak.
Aldizkakotasuna: Hiru hilean behin (beharraren arabera). <i>2024ko urtarrilaren 23a 2024ko apirilaren 12a 2024ko ekainaren 11 2024ko urriaren 4a 2024ko urriaren 30a 2024ko abenduaren 2a 2024ko abenduaren 17a</i>	Aldizkakotasuna: urtean lau aldiz (hiruhileko bakoitzean behin). <i>2024ko urtarrilaren 26a 2024ko apirilaren 26a 2024ko uztailaren 12a 2024ko urriaren 25a</i>	Aldizkakotasuna: behin, urtearen hasieran. <i>2024ko otsailaren 23a</i>
Helburuak: Urte honetan zehar, protokoloan jasotako ekintza guztiak bultzatzera bideratuta egon dira mahai honen helburuak.	Helburuak: Arreta jaso duten emakumeen datuak partekatzea, hobetzeko arloak hautematea eta baliabideek emakumeei arreta ematean jarraitzen duten prozedura ezagutzera ematea, baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko, indarguneak eta hobetzeko alderdiak identifikatuz, beste gauza batzuen artean.	Helburuak: Urte osoan zehar egindako lana ezagutzea eta mahai teknikoak hartutako erabakiak baliozkotzea.

Otsailaren 23an egindako mahai politikoan, ordezkari politikoek hitzarmen berria sinatzeko konpromisoa hartu zuten eta ezartzeko erantzukizuna berretsi zuten. Lau udalerrietako alkateek protokoloan lan egiten jarraitzeko borondatea adierazi zuten, behar den laguntza teknikoarekin, eta dagokion lizitazioa onartu zuten. Era horretan, indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa hobetzen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa



TOKIKO KOORDINAZIOKO MAHAIA (TKM)

Parte-hartzaileak: indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko tokiko zerbitzuetako teknikariak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.

Aldizkakotasuna: urtean lau aldiz (hiruhileko bakoitzean behin).

Helburuak: udalerrian artatutako emakumeen datuak partekatzea. Kasuei buruz gogoeta egin daiteke larrialdia eta gero, eta ikuspegi osatuagoa eta koordinatuagoa eskaintzen du. Kasuen jarraipena egitea errazten du: informazioa eragileen artean partekatzen bada, testuingurua hobeto uler daiteke, ereduak detekta daitezke (birbiktimizazioa kasurako), eta arretaren eraginkortasuna eta jarraitutasuna hobetu, ondorioz.

Tokiko mahaietan udal-sailetako profesionalek parte hartzen dute, teknikariek zein politikariek, emakumeen aurkako indarkeriaren arreta, prebentzio eta jarduketa arloko funtzioak eta zuzeneko eskumenak dituztenek.

2021era arte, Elorriok bakarrik zuen Tokiko Koordinazio Mahaia. Azken urteotan ahalegin handia egin da gainerako udalerrietako tokiko mahaiak aktibatzeke, eta sendotu egin dira eragile egonkorrekin eta hiru hilez behingo bilerekin.

Bakoitza bere testuinguruan, mahai horiek sortuz eta berriz aktibatuz, udalerriek esku-hartze zuzena egiteko aukera dute, mahai teknikoak ez bezala. Mahai horiek prebentzioa, arreta eta jarraipena lantzeko aukera gehiago eskaintzen dituzte. Aldiz, mahai teknikoa koordinazioan oinarritzen da.

Tokiko testuinguruak ikuspegi mikroa, zehatza eskaintzen du eta arreta egokiagoa eskaintzeko bidea da. Halaber, udalerri bakoitzaren testuinguruan erantzun instituzionala jaso duten kasuen gaineko gogoeta egiteko aukera eskaintzen da, balorazio laburra eginez, etorkizuneko egoeretarako hobetzeko arloak identifikatu ahal izateko.

Aurten, honako hauek izan dira tokiko mahaien testuinguruan egindako bilerak:

Abadiño	Berriz	Durango	Elorrio
2024ko urtarrilaren 25a 2024ko apirilaren 24a 2024ko ekainaren 26a 2024ko urriaren 23a	2024ko apirilaren 24a 2024ko uztailaren 4a 2024ko urriaren 14a	2024ko urtarrilaren 27a 2024ko apirilaren 30a 2024ko uztailaren 12a 2024ko urriaren 25a	2024ko urtarrilaren 24a 2024ko apirilaren 24a 2024ko uztailaren 3a 2024ko urriaren 17a

3. HELBURUAK ETA 2023AN GAUZATUTAKO EKINTZAK

Protokoloaren esparruko helburuak eta egindako ekintzak helburu finkatueta eta helburu espezifikoetan bana daitezke:

<i>Helburu eta ekintza FINKATUAK</i>	<i>Helburu eta ekintza ESPEZIFIKOAK</i>
•Urtero aldizka egiten direnak dira, eta protokoloan, urtetik urtera, ohiko prozeduran ezarrita daude.	•Abian den ikasturterako diseinatzen dira, eta ez dago urtero jorratu beharrik.

2024rako helburuak urtearen hasieran (urtarrilean) ezarritako plangintzak zehazten ditu, baina hasierako helburu batzuk aldatu edo data desberdinetan egin dira, protokoloaren beharretara egokitzeko, eta, aldi berean, ekintza berriak sartu dira. Jarraian, urtearen hasieran markatutako helburu orokorrak aurkezten dira, dagozkien aldaketekin:

- Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.
- Arreta-baliabideetan arreta emandako emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeen erantzuna hobetzeko.
- Mahai Teknikoan parte hartzen duten pertsonen artean informazioa trukatzeko tresna bat izatea.
- Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.
- KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako **informazio erabilgarria eta eguneratua** ematea.
- Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea.
- Protokoloaren edukia zabaltzea.
- Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea.
- KTMko eta TKMko pertsona berriekin harremanak sendotzea.
- Gaurkotasuneko gaiekin zerikusia duten mahaietan intereseko zenbait gogoeta sortzea.

Hurrengo tauletan, **2024ko helburuak eta urtean zehar egin diren ekintza zehatzak** erakusten dira, baita bakoitzean parte hartu duten eragileak, egindako ekintzetatik eratorritako produktua eta ekintza bakoitzak erantzuna eman nahi izan dion Protokoloko¹ neurria ere. Gainera, xehetasunez azaltzen da ekintza bakoitza.

¹ Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloak jasotzen duen jarraipenerako eta ebaluaziorako fitxa hartuko dugu kontuan, eta hala, protokoloan jasotako ekintzak zenbateraino betetzen diren ebaluatuko dugu.

AURTEN LANDUTAKO HELBURUAK ETA EKINTZA FINKATUAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIOA/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
1. Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.	- KTM, TKM eta KOMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Bileren egutegia eta aktak.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
2. Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeek ematen duten erantzuna hobetzeko.	- KTMko eragileen artean informazioa partekatzeko sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea. - Lauhilekoko datuei eta koordinazio eta erantzunari lotutako hobekuntzei buruzko hausnarketa KTMn. - Artatutako emakumei buruzko urteko datuen azterketa.	KTMko profesionalak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Excel tresna. Urtean zehar artatutako emakumei buruzko dokumentua.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
3. Mahai Teknikoan inplikaturako eragileen artean partekatutako tresna bat izatea, informazioa errazago trukatu ahal izateko.	- Barne webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durungaldeprotokoloa.org	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Barneko webgunea.	B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.
4. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.	- KTMri eta interesa duten beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza. - Politikariei zuzendutako prestakuntza.	KTMko profesionalak. Interesa duten beste eragile batzuk. Politikariak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Aurkezpenerako Power pointa.	I1.2. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.
5. KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako informazio erabilgarria eta eguneratua ematea.	- Hileroko bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Hileroko buletinak.	A1.2. Protokoloarekin lotutako baliabideak hedatzea.
6. Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea.	- Urteko memoria dokumentua egitea. - Plangintza dokumentua egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Urteko memoria. Urteko plangintza.	K1.1. Protokoloaren ezarpenari lotuta, urteroko jarraipenaren txosten bat egitea.
7. Protokoloaren edukia hedatzea.	- Protokoloaren triptikoa banatzea protokolotik kanpoko eragileekin egiten diren bileretan.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	-	A1.1. Protokoloaren edukia hedatzea.

Egindako ekintzen xehetasunak:

Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. KTMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.

Gaur egun, Koordinazio Teknikoko Mahaiak lau bilera egiten ditu, hiruhileko bakoitzeko bat. Denetan **aztertzen dira dagokion hiruhilekoan artatutako emakumeei buruzko datuak, eta erakundeen arteko koordinazioari buruzko informazioa trukatzeko da.**

Aldi horretan zehar, mahai teknikoetan, udalerrietako datuei buruzko informazioa partekatzeaz gain, bikotekide edo bikotekide ohitik harago doazen **indarkeria moduak** ikusarazteko ahaleginean jarri dute fokua, eta gure Excel tresnan txertatu dituzte, gure baliabideetara iristeko hainbat bide nabarmenduz, polizia arlotik harago. Mahai teknikoek azaleratzen ari diren indarkeria-motak tratatzea erraztu dute; adibidez, adimen-desgaitasuna dutenen kontrako genero-indarkeria —eta arreta egokia ematea— eta ezkontza behartuak. Ez alferrik, mahai teknikoetan indarkeria-forma horiek eta beste batzuk identifikatzen hasi gara. Koordinatzeko modurik onena eta egoerak eragindako pertsonak modu eraginkorragoan artatzeko biderik egokiena zein diren identifikatzeko lan egin da.

Koordinazioari dagokionez, **osasungintzarekiko lotura indartu eta egonkortu da**, eta partaidetza aktiboa lortu da tokiko mahaietan eta mahai teknikoetan. Orobat, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira koordinazioan eta kasuak bideratzeko lanean.

Nolanahi ere, **berean dirauten oztopoak eta erresistentziak identifikatu dira 2024an**. Azpimarratzekoa da, arreta egokia ez ezik, sistemen arteko koordinazio eraginkorra ere ezinbestekoa dela. Erakunde Arteko III. Akordioan, sistema guztiek koordinatzeko duten konpromisoa finkatzen da eta koordinazio hori gauzatzeko gidalerroak definitzen dira.

Bereziki aipatu behar da lehen hiruhilekoaren zati batean ez zirela bideratu datuak partekatzea baimendu zutenen kasuak, eta horrek jarraipena zaildu du eta emakumeek beste zerbitzu batzuen laguntza eskuratzea atzeratu du. Nagusiki, egoera horiek Ertzaintzaren egiturazko aldaketekin lotuta daude; izan ere, bolada batean ez zen egon indarkeria matxistaren aurrean jarduteko langile aktibo espezifikorik. Arazoa konpondu egin zen ondoren, baina denbora erabakigarria da horrelakoetan. Behar den arreta modu integral, eskuragarri, unibertsalean eta behar den kalitatearekin ematen ez denean, eragina handia da emakume eta nesken artean.

Halaber, koordinazio-arazoak identifikatu dira berdintasun-arloen eta gizarte-zerbitzuen artean. Oztopo horiei aurre egite aldera, protokoloaren mahai orokorrak deialdi bat egin zuen eta bilera egin zen abenduaren 3an. Mankomunitateko presidenteak eta mahai teknikoetan ordezkari diharduten gizarte-langileek parte hartu zuten. Bilera bi arrazoi nagusirengatik egin zen. Alde batetik, urriko mahai teknikoan identifikatu zen landu egin behar direla bideratzeko prozesuetan eta gizarte-zerbitzuen eta berdintasun-zerbitzuen arteko koordinazioan dauden arazoak. Eta beste aldetik, bi baliabideen arteko koordinazioa okerrera joan zela ikusi zen urteko azken hilabeteetan. Hortaz, egoerari heltzea eta hura ebaztea premiazkoa zen.

Azken urteotan, **protokoloaren mahaietako langileak neurri handian txandakatu** direla ikusi da, mahai teknikoan batez ere. Zehazki, eragileak aldatu dira, ordezkapenak egin dira eta bajak ere gertatu dira. Errealitate hori erronka handia da, denbora eta ahalegina behar baitira laneko metodologiak, logika operatiboa eta protokoloaren helburuak transmititzeko. Erakunde arteko koordinazioa indartzeko asmoz, bilerak egin ziren eta posta elektronikoko bidezko etengabeko kontaktua bideratu zen mahaiko kide berriekin, eta enfasi berezia jarri zen berdintasun-arloetan. Ekintza horien muina izan zen taldeak neurrien aurrerapenei buruzko informazioa eduki zezan ziurtatzea eta protokoloaren zentzua zein helburuak eraginkortasunez transmititzea.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

Prozesuen maparekin jarraituz, mahai teknikoak osatzen duten lau udalerrietako **berdintasun-arloak aurkeztu** ziren. Berdintasun-arloek protokoloari eusteko duten zereginaren garrantzia nabarmendu zen, ongi funtzionatzeko ikuspegi estrategikoa den heinean. Garrantzitsuak dira, halaber, urteetan zehar duen bilakaeraren jarraipen historikoan, erregelamenduko aldaketak ezartzeko lanean eta aldaketa horiek betetzeko urratsetan.

Bestalde, mahai teknikoak emakumeen aurkako indarkeria matxistan sakontzeko espazio bat izan dira 2024an. Koordinazio Orokorreko Mahaiak lan-prozesu jarraitu baten gisara diseinatu dituzte saioak:

Apirileko saioan dinamika bat landu zen, emakumeen aurkako indarkeria matxista dela-eta **eragile edo zerbitzu bakoitzak egunerokoan dituen zalantzak, irismena eta mugak ezagutzeko**. Besteak beste, gai hauek jorratu ziren: zer egiten duen zerbitzu bakoitzak; nori ematen dion arreta; araudian datozen indarkeria-formak eta -eremuak estaltzeko gaitasuna duten edo ez; nola egokitzen den arreta adingabeentzat, egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat edo behar espezifikoak dituzten emakumeentzat (adibidez, desgaitasuna dutenak edo atzerrikik etorritakoak); eta zer oztopo aurkitzen dituzten jarduera egungo arau-esparrura egokitzeko, profesionalen trebakuntzan, koordinazio-protokoloetan, kalte indibidualaren eta sozialaren erreparazioan eta birbiktimizazioaren prebentzioan.



Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa jorratu zen saioan, lege horren helburuekin lotuta dauden hainbat gai garrantzitsu landu ziren, eta, orobat, zer baliabide dauden eta legeriak zer ekarpen dakartzan.

Saioaren helburua alderdi horietan sakontzea izan zen, legea ondo ezartzen dela ziurtatzeko eta aplikazioan esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioa errazteko.

Krisietan eta sexu-indarkeriaren aurrean arreta integrala emateko zentroei buruzko saioan, funtzionamendua ulertzeko eta tokiko testuingurura egokitzeko gai garrantzitsuak jorratu ziren.

Saio horretan sakonago ezagutu ziren prestazioak eta arreta-modalitateak (aurrez aurrekoak eta birtualak). Horrez gain, zentroak EAEko errealitate espezifikora nola egokitzen diren hausnartu zen, biktimei arreta egokia eman behar baitzaie haien beharrak eta inguruabarrak aintzakotzat hartuta.


Helburua erdibeteta



Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumeei buruzko datuak partekatzea KTMko eragileen artean informazioa sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea.

KTMko kideek **Excel-tresna**² bat partekatzen dute, eta hor identifikatzen dituzte baliabideetan arreta jaso duten emakumeak. Datuak erraz eta modu didaktikoan biltzeko lan-tresna erabilgarriak dira, teknikari guztiek tresna erraz bat txerta dezaten beren jardueran, eta, hala, indarkeria jasan duten emakumei arreta integrala, koordinatua, indibidualizatua eta kalitatezkoa berma diezaieten.

Hasieran, Ertzaintzak betetzen du Excela, eta ondoren, gainerako baliabideetakoek; jarraian, gizarte-zerbitzuek eta azkenik Osakidetzak (normalean kasu gehien jasotzen diren ordenaren arabera).



Aurten, helburu nagusia izan da indarkeriaren forma berriak eta aitortza txikiagoa dutenak sakonago ulertzea eta identifikatzea. Oraindik zailtasun handiak daude datuak biltzeko eta *ikusezintzat* jotzen diren indarkeria-formen aurrean arreta emateko. Indarkeria-forma horiek oharkabean pasatzen dira maiz, eta hedabideetan nahiz sare sozialetan adierazten dira bereziki. Espazio espezifikoetan ere bai, esate baterako, lantokietan edo eskolan, non gizonek kaltea betikotzen duten jokabideak dituzten.

Aldi berean, instantzia polizialeetatik edo judizialeetatik harago doazen hainbat sarbide nabarmendu dira. Aitortza horrek nabarmentzen du beharrezkoa dela sarbide askotarikoagoak izatea, emakumeen behar eta baldintza aldakorretara egokitzeko.

Oraindik zailtasunak daude gizarte-zerbitzuek kasu guztiak gure tresnan jasotzeko. Kasu horietako batzuk tokiko mahaietan aztertu eta lantzen dira. Ez salatzea erabakitzen den kasuak bidean gelditzen dira, ordea. Horrek esan nahi du beste baliabide batzuek ez dutela emakume horiei buruzko informazioa izango. Hortaz, haien interesekoak izan daitezkeen beste zerbitzu batzuek esku hartzeko aukera zailtzen da, eta horrek koordinazio-sistema eraginkorragoa

² Arreta jaso duten emakumeen inzialak biltzen ditu Excelak datuak lagatzen direnean, hala, jakin daiteke ea emakumeek protokolo baliabideetan arreta jaso duten.

Tresna hori gainerako baliabideetara iristen ez diren kasuak, gorabehera zehatzak, zailtasunak eta kasuen espezifikotasunak eta abar hautemateko abiapuntua da. Hortik abiatuta, erantzuna emateko eta hobetzeko ekintzak zehazteko saiakera egiten da.

Bildutako datuekin, urte amaieran, arreta jaso duten emakumeen datuei buruzko dokumentu bat prestatzen da (datuen azterketa estatistikoa) eta urteko memoriari eranstean zaio.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduerak eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

bermatzeko aukera emango luke. Gai hori mahai tekniko batean baino gehiagotan aipatu da, eta hobetzeko ahalegin gehigarria egitea erabaki da.

Helburua erdibeteta



Tresna partekatua izatea. Barne-webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durungaldeprotokoloa.org



KTM osatzen duten kideentzako barne-erabilerarako web-espazio honek aukera ematen du prozesuan zehar sortzen diren **dokumentu** guztiak bertara iraultzeko: saioetako aktak, txostenak, jorratzen diren gaien buruzko dokumentazio garrantzitsua eta abar.

Gure jarduerari lotutako informazioa iraultzeaz gain, **erabiltzaile eta gako berriak** eguneratu eta sortzeko. Batetik, profil berriak sortu dira eta webguneak zer funtzio duen azaldu zaie. Bestetik, errepasoa egin da dagoeneko protokoloaren parte aktibo ez diren kideak ezabatuz eta gakoak birbegiratu. Izan ere, aurreko eragile asko aldatu dira mahai teknikoan, eta tokiko bi mahai berri sortu dira. Mahai horiek beren web-orria dute udalerriko protokoloari buruzko dokumentazioa gordetzeko. Akta eta eduki interesgarriak sortu ahala elikatu beharko da atal hau.

Halaber, eskura dagoen informazioa berrikusten da, baliabideak hainbat espaziotatik sortzen ziren gogoeten jakitun egon zitezen: dokumentuak, webinarra...

Hauek dira aurreko webgunera igotako zenbait dokumenturen adibideak: bilera guztien aktak eta intereseko informazioa, esate baterako, gida Penal (genero-indarkeriaren biktimetarako zigor-prozesua).

* Material guztia barneko web-espazioan dago eskuragarri: www.durungaldeprotokoloa.org

Helburua beteta



Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.

KTMri eta beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza + Politikariei zuzendutako prestakuntza.

Oso garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko trebakuntza eta prestakuntza sendoa eta espezializatua bermatzea protokoloa sinatu duen erakunde bakoitzeko profesionalentzat. Urtero bezala, aurreko ere bi prestakuntza egin dira protokoloaren testuinguruan, KTMri eta KPMri zuzenduta.

Gainera, interesgarriak izan daitezkeen prestakuntza, mintegi eta jardunaldien berri eman diegu eragileei.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduerak eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten duten sistemak eta baliabideak ezagutzea (zer sistemak parte hartzen duten, zer baliabide dauden, etab.).
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistari erantzuteko sistemak zer lankidetzahitzarmen nagusiren pean gauzatzen eta koordinatzen diren jakitea: Erakunde arteko III. Akordioa eta tokiko protokoloak.

Udal sinatzaileetako alkate batzuk trebakuntza-saioan egon ziren, eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko presidentea ere bai. Haatik, agerian geratu zen ordezkartza politikoa garrantzitsuak ez zirela bertaratu. Horrelako espazioek sistemen konpromisoa eta babes politikoa behar dute udaletan. Indarkeria desagerrarazteko apustua gero eta nabariagoa den heinean, aurrerapauso argiagoak ikusten dira protokoloetan.

Langile politikoek ontzat jo zuten trebakuntza, 10 puntutik 9 esleituta. Gainera, protokoloaren lanean sakontzeko interesa adierazi zuten.

Izena	Kargua
Alazne Mendizabal	Elorrioko berdintasun-zinegotzia
Julene Lazkano Zenitagoia	Elorrioko alkatea
Mikel Urrutia	Abadiñoko alkatea
Naiara Bildosola	Abadiñoko berdintasun-zinegotzia
Paule Sanchez Arieta-Araunabeña	Durango berdinatasun-batzordeko presidentea
Ainara Otxorena	Mankomunitateko presidenteordea
Idoia Otaduy	Mankomunitateko presidentea
Iñaki Agirrebeitia	Durango Lehen Mailako Arretako Unitateko burua

Helburua beteta



KTMri informazio erabilgarria eta eguneratua aldiaren behin eskaintzea

Hilero bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).

Hilero buletina _ Bolefin mensual. Urria 2019_Octubre 2019

BERRIAK NOTICIAS

San Faustoi begira autodefentsa eta jai parekideak lantzeko tailerrak antolatzen dituzte

Mutuei zuzendua egongo da taller horietako bat eta jai parekideak nola landu daitezkeen azalduko dute. 15 eta 26 urte bitarteko mutuei zuzenduta dago. Emakumeek autodefentsa feministak lantzeko ikastaroa izango dute eskura... [Informazio gehiago>>](#)



Clamor contra un congreso sobre el síndrome de alienación parental en la Universidad de Deusto

El SAP es un hipotético síndrome que consiste en manipular a los niños y niñas para ponerlos en contra de otro miembro de la familia, generalmente la madre contra el padre. Mujeres que Aman Demasiado y la asociación contra la violencia Gafas Moradas... [Más información>>](#)



Emakunde erakunde eta eragile sozialekin lanean ari da emakume eta neskatuen salerosketa eta sexu esplotazioaren prebentzioan

Mahai honetan koordinazio, sentsibilizazio eta prestakuntza ekimen ezberdinak bultzatu dira. 2018an, adibidez, eremu ezberdinetako 233 profesionalen prestakuntza berezia jaso dute gailaren inguruan. Honekin batera, mahaiaren helburuen artean... [Más información>>](#)



Durango decreta el «estado de emergencia» y se tñe de violeta contra la violencia machista

Durango se tñe ayer de luces violetas contra la violencia machista tras un trágico verano en el que, tan solo durante las fiestas de las capitales de Euskal Herria, se han registrado 25 denuncias por abusos sexuales. «¿Es normal que durante el mes de julio haya sido asesinada una mujer cada dos días?»... [Más información>>](#)



Hilero bidaltzen zaie Koordinazio Teknikoko Mahaiko (KTM) kideei indarkeria matxistari lotutako intereseko **albisteak eta ekitaldiak** biltzen dituen **buletina**: gaiarekin lotutako albisteak, tokiko albisteak eta udalerriaz gaindiko albiste interesgarri batzuk; EAren esparruarekin lotutako jardunaldiak eta ekitaldiak; protokoloan parte hartzen duten udalerrietan gaiari buruz egiten diren ekitaldiak. Alderdi hori udal bakoitzeko berdintasun-teknikariei ematen duten informazioari esker sortzen da.

Helburua beteta



Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea. *Urteko memoria* + Plangintza dokumentua egitea

Urtearen amaieran **urteko memoria** egiten da, eta Koordinazio Teknikoko Batzordeak berrikusten du. Ondoren, sinatu duten erakundeei aurkezten zaie. Egindako jarduketak, Koordinazio Teknikoko Batzordean hartutako erabakiak eta proposamenak jasotzen dira bertan, eta urtean zehar jasotako datu kuantitatiboak erregistratzen dira, indarkeriaren inpaktua ezagutu ahal izateko.

Hurrengo urterako **plangintza** ere egiten da, esperientzian eta prozesuan hautemandako beharretan oinarrituta. *Ad hoc* plangintza izaten da, KTMrekin partekatzen da eta KPMn aurkezten da. Dokumentuak 2025ean jorratzeko helburu eta ekintza sorta bat biltzen du, Koordinazio Orokorreko Mahaiaren barne-hausnarketatik eta aurreko urteko memorian identifikatutako erronketatik abiatuta.

Gainera, dauden jarraipen-adierazleen datuak biltzen dira, parte hartzen duten erakunde eta jarduera eremu guztiei ebaluazio koordinatua eta etengabea egiteko aukera emateko, baterako jarduera planteatutako helburuetara etengabe egokitu ahal izateko.

Helburua beteta 

Protokolotik kanpoko eragileekin izandako bileretan **protokoloa hedatzea**.

Udalerrietako berdintasun-teknikariak protokoloaren memoria eta triptikoa hedatzeaz arduratzen dira.

Helburua bete gabe 

AURTEN LANDU DIREN HELBURU ETA EKINTZA ESPEZIFIKOAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIO A/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
8. Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea . Adierazlea: bilerak eta aktak	Baliabide berriak: indarkeriari heltzeko baliabide espezifikoak Harremanak eragile interesgarriekin: Hirugarren Sektore Soziala	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa. Kanpoko eragileak.	Aktak	. B2.7 Lanbiderekin erakundeko koordinazioa hobetzea. B2.8 Hezkuntzarekin erakundeko koordinazioa hobetzea. C1.2. Komunikabideak inplikatzeari B3.2. Gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan aritzeko bideak ezartzea, indarkeria jasaten aritu daitezkeen edo ari diren emakumeekin prebentzio- eta hautemate-lanak egiteko eta haiei lagun egiteko.
9. KTMko eta TKMko pertsona berriei harremanak sendotzea .	- Pertsona berriei funtzionamenduari buruzko informazioa ematea, datuen bilketarekiko konpromisoa azaltzea eta abar.	Idazkaritza Teknikoa. KTM.	Aktak, mezu elektronikoak.	C1.1. Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza sustatzea.
10. Gaurkotasuneko gaiekin zerikusia duten mahaietan intereseko zenbait gogoeta sortzea. Adierazlea: aktak, materialak...	-Inguruko baliabideak ezagutaraztea, eragileek indarkeriari buruz jasotzen duten trebakuntzari buruz hausnartzea, indarkeria matxistaren biktima diren seme-alabei arreta ematea, etab.	Idazkaritza Teknikoa. KTM.	-	C1.1. Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza sustatzea.

Egindako ekintzen xehetasunak:

8. Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea:

Aurretik Lanbiderekin zegoen harremanari eutsi zaio eta 2023an lortutako akordioekin jarraitu da, etorkizuneko elkarlana sendotzeko. Besteak beste, aipatzekoa da komunikazioa erregularra dela posta elektronikoz eta Lanbidek gonbidapena helarazten digula urteko trebakuntza teknikoetan parte hartzeko.

Bestalde, osasungintzarekin berriz biltzeko saioa egin zen, koordinatzaile soziosanitarioarekin zehazki, osasungintzaren ingurunean indarkeria matxistako kasuen aurrean jokatzeko eta koordinatzeko egin diren aurrerapausoak berrikusteko asmoz. Alabaina, harremana ona bada ere, bilera ezin izan zen egin agenda-arazoengatik.

Aurten, Koordinazio Orokorreko Mahaiak erabakita, **hirugarren sektore sozialarekin lan egitea lehenetsi da**. Sektore horrek duen zeregina funtsezkoa dela uste da, pertsonen salerosketa goiz detektatzeko, detekzioa eraginkorra izateko eta protokoloan parte hartzen duten eragileen artean koordinatzeko. Bereziki, eragileek oso eginkizun garrantzitsua dute udalerrri txikietan: han, haien esku-hartzea ezinbestekoa da.

Xede hori gogoan, bi trebakuntza-saio antolatu ziren azaroan, Elorrión eta Abadiñón. Saioak diseinatu ziren protokoloarekin zerikusia duten alderdi garrantzitsuak lantzeko eta hirugarren sektoreko eragileen eta udal-taldearen arteko harremana indartzeko.



Saio horietan, protokoloa era orokor batean aurkeztu zen, urtean zehar egindako ekintzak nabarmendu ziren eta edukietan zein terminologia espezifikoak sakondu zen. Horrez gain, berriki egindako legeria-aldaketei buruzko esparrua azaldu zen, indarkeria kontzeptualizatu zen eta biktimak artatzeko eskura dauden baliabideen mapa jorratu zen. Tokiko analisi bat ere egin zen: udal-mapa, zerbitzuak eta lurralde bakoitzeko eragile espezifikoak xehetasunez deskribatu ziren.

Amaitzeko, saioen zati bat detekzioarako gorde zen. Bloke horretan, detekzioa definitu zen, gidalerro zehatzak eman ziren eta indarkeriarekin lotuta dauden kasuak nola kudeatzen diren azaldu zen, detekzioaren, arretaren eta bideratzearen faseetan. Orobat, dokumentu erabilgarriak identifikatu ziren; adibidez, Ekinen gidak eta baliabideak, eragileen lana sendotu dezakete eta. Azken helburua aliantzak sustatzea eta koordinazioa indartzea izan zen, indarkeria matxistako kasuei ematen zaien erantzuna hobetzeko tokian-tokian.

Helburua beteta



9. KTMko eta TKMeko pertsona berriekin harremanak sendotzea.

Aipatzekoa da Indarkeria Matxistaren Unitatea sortu zutela Durangon 2024ko maiatzean. Zeregin nagusia indarkeria matxistako kasuak detektatzea eta, horrelakoetan, akonpainamendua eta jarraipena egitea da. Era berean, biktimak osatzeko eta arazoari buruz sentsibilizatzeko estrategiak diseinatu, koordinatu eta ikuskatzen ditu.

Indarkeria Matxistaren Unitateko teknikari berriak protokoloarekin bat egin zuen, nola Koordinazio Orokorreko Mahaian hala protokoloaren mahai teknikoan. Protokoloaren barruan guztiz txertatu arte lan egin behar da oraindik. Dena den, figura hori lan-espazioetan sartzeko eta protokoloaren dinamikekin ohitzeko lehen urratsak egin dira 2024an.

Helburua beteta



10. Mahaietan hausnarketa interesgarri batzuk sortzea, gaurkotasun-gaiekin lotuta

Urtearen hasieran, bilera bat egin zen Koordinazio Orokorreko Mahaiak antolatuta. Mankomunitateko presidentea eta Bizkaiko Foru Aldundiko ESNATU baliabideko arduradunak bertaratu ziren (arreta psikologikoko programa bat da). Bileraren helburua **erantzun bat ematea** izan zen, **indarkeria matxistaren biktimei arreta psikologikoa emateko zerbitzuek lan gehiegi baitute, eta kezka gero eta handiagoa da**. Gaur egun gainezka daude. Egoera kezkarria da oso, indarkeria matxista jasan duten emakumeen osotasuna eta ongizatea jokoan baitaude. Arazoari heltzeko eta protokolutik erantzun egokia emateko konpromisoak lortu ziren bileran. Hala eta guztiz ere, baliabidea eskuratzeko zailtasunak daude oraindik udalerrri batzuetan.

Mahai bakoitzerako koordinaziorako edo berariazko prestakuntzarako topaguneetatik harago, beharrezkoa da emakumeen kontrako indarkeria matxistaren arloko berrikuntzei buruzko informazioa izatea.

Araudian egindako aldaketak eztabaida politiko eta sozial bizien emaitza dira, emakumeen eta neskek eskubideak bermatzearen harira. Neurri handian, aurrerapausoak lortzen dira mugimendu feministaren bultzadari esker. Oraindik oso ikusgai ez diren indarkeria-formak aztertzeke, jada ezagunak diren indarkerien modalitate berriak identifikatzeko eta arretaren gabeziak zein prozedura batzuen eraginik eza salatzeko beharra mahai gainean jarri du. Testuinguru horretan, protokoloaren mahai teknikoak etengabe eguneratzeko konpromisoa du, egungo araudia eta eztabaidak ekarriz.

Sexu-indarkeriari buruzko gogoetek mahai teknikoak egituratu dituzte 2024an zehar. Halaber, mahai teknikoan **hausnartu da indarkeria instituzionalak bere horretan jarraitzen duela**, bigarren mailako biktimizazioaren bitartez. Birbiktimizazioa gertatzen da akatsak egiten direlako egoera aztertzean eta, orobat, emakumeek biktimizazio bikoitza pairatzen dutelako arreta polizial, judizial edo psikosozialeko prozesuetan. Arreta egokia ematen ez denean gertatzen da, sistema biktima bat behar bezala detektatzeko gai ez denean, sinesgarritasun faltagatik, zalantzan jartzeagatik, infantilizatzegatik, paternalismoagatik, besteak beste.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

Fenomeno horrek indarrean jarraitzen du, eta botere publikoek egin beharrekoa ez egiteagatik edo geldi geratzeagatik gertatzen da, edota emakumeen eskubideak urratzen edo ezeztatzen dituzten jarduerengatik.

Egoera horietan ez da babesa ematen. Aitzitik, biktimen zaurgarritasuna larriagotzen dute eta kaltea areagotzen dute, birbiktimizatuz. Dinamika horiek identifikatzen aurrera egin behar da nahitaez, eta erantzun eraginkorrak garatu behar dira behar diren arreta eta erreparazioa bermatzeko.

Helburua erdibeteta



Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

4. PROTOKOLOAREN HARIRA 2024AN ARTATUTAKO KASUAK

Hurrengo atalean aurkeztuko ditugu indarkeriaren biktima izan, eta 2024an protokoloari atxikitako udalerrietako (Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio) baliabideetan artatu dituzten emakumeen kopuruari buruzko datuak.

Euskadin, **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzearen aldeko lege** berriak ikerketa handitzeko eta datuen bilketa, komunikazioa eta zabalpena hobetzeko beharra jasotzen du. Jarduera horiek guztiak datu pertsonalen babesari buruzko legediaren xedapenetara eta Europako eta nazioarteko organismoek arlo horretan ezarritako irizpideetara egokitu behar dira. Tratamenduaren konfidentzialtasuna ezinbesteko baldintza da kasu guztietan eta jarraitu beharreko printzipiorik garrantzitsuen izaten jarraitzen du.

Indarkeriaren aldaketa kontzeptualarekin batera, kuantifikazioa ere aldatu da. Protokoloan informazioa sistematizatzeko ariketa bat egiten ari dira, indarkeria kuantifikatzeko eta instituzioetatik egiten den prebentzioa eta arreta hobetzen laguntzeko ereduak irudikatzeko.

Alabaina, indarkeria matxista kuantifikatzea zaila da, besteak beste, jartzen diren salaketak kasu guztien zati txiki bat baino ez direlako; maiz emakumeak ez direlako kontziente jasaten ari diren indarkeriaz; edo ez dagoelako adostasunik datuak biltzeko adierazleen eta irizpideen gainean, ondoren estatistikak modu fidagarrian egin ahal izateko.

Horrez gain, tokiko mahaiek aukera ematen dute kasu zehatzetan sakontzeko eta artatutako kasu zehatz guztietara hurbiltzeko (360ºko ikuspegia); izan ere, sistemaren baliabideek **artatutako** kasu guztiak (Mahai Teknikoaren kasuak biltzeko Excelaren bitartez biltzen dira), zein **hauteman** arren artatu gabe dauden kasuak (ez direlako sistemaren baliabideetan sartzen, “arretaren linboan” dauden kasuak direlako, etab.) edo **susmoa** pizten duten kasuak (gehiago aztertze prozesuan) kuantifikatzen dira.

Hori guztia, erakundeetara hurbildu ez diren emakumeen, salaketa aurkeztu ez duten emakumeen edo indarkeriari beste bide batzuetatik (familia, emakumeen elkarteak, ahalduntze-eskolak...) aurre egiten dieten emakumeen errealitatera hurbiltzen jarraitzeko.

Jarraian, 2024ko datuak eskainiko ditugu hainbat aldagaien arabera; adibidez, emakumeek jasandako indarkeria mota, adina, jatorria eta babes-neurriak izatea edo ez. Kasu bakoitzean, gainera, dagokien udalerriaren arabera ere bereizi ditugu datuak.


2024an, indarkeria matxistaren ondorioz **105 emakume artatu ziren** guztira Abadiñon, Berrizen, Durangon eta Elorrion. Horrek esan nahi du 2023an baino **21 kasu gehiago** artatu direla (84 kasu izan ziren). Igoerarik handiena Durangon (+13 kasu) eta Berrizen (+7 kasu) gertatu da.

Aipatu behar da artatu diren kasuak jasotzen direla erregistroetan, baina emakume batzuk erasoen biktima izan dira behin baino gehiagotan urte berean.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

	2024		2023		Desberdintasuna
Udalerria	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
ABADIÑO	8	7,6	7	8,3	+1
BERRIZ	14	13,3	7	8,3	+7
DURANGO	56	53,3	43	51,2	+13
ELORRIO	27	25,7	27	32,1	0
Guztira	105	100	84	100	21

Kasuen erdia baino zertxobait gehiago (% 53) Durangon erregistratu ziren; % 26, Elorrion; % 13, Berrizen; eta % 8, Abadiñon.



Indarkeria matxista urte osoan zehar erregistratu da. Halarik ere, **kasuak lehen hiruhilekoan kontzentratu dira gehienbat, 38 erregistroekin.**

1.HH	2.HH	3.HH	4.HH
38	23	20	24
GUZTIRA: 105			

Indarkeria motari erantzunez, aipatu beharrekoa da emakumeen aurkako indarkeria mota guztietatik **bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa dela ohikoena**. Indarkeria-forma horren ondorioz erregistratutako biktimizazioak emakumeen aurka erregistratu diren indarkeria-kasu guztien % 67,3 dira azken urtean. Indarkeria hori handixeagoa da udalerrietako guztizkoa baino, Abadiñon eta Durangon.

Nolanahi ere, artatu diren kasuen % 12,5 familia barruko indarkeriatzat hartu da. Batezbestekoa Elorrion gaingitzen da, kasuen % 18,5 baitagokio bost erregistroekin.

Halaber, datuek aditzera ematen dute bikotekidea edo bikotekide ohiaren eremutik kanpoko sexu-indarkeria nabaria dela, kasuen % 16,3 sexu-indarkeria gisa erregistratu baita. Gainera, indarkeria sexistako kasuak % 2,9 izan dira 2024an, muturreko indarkeriako kasu batekin.



2024AN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA ETA UDALERRIKA.
ABSOLUTUAK ETA %.

		Genero- indarkeria	Familia barruko indarkeria	Sexu- indarkeria	Indarkeria sexista	Muturreko indarkeria	GUZTIRA
ABADIÑO	Abs.	6	0	2	0	0	8
	%	75,0	0,0	25,0	0,0	0,0	100,0
BERRIZ	Abs.	8	1	4	1	0	14
	%	57,1	7,1	28,6	7,1	0,0	100,0
DURANGO	Abs.	39	7	8	0	1	55
	%	70,9	12,7	14,5	0,0	1,8	100,0
ELORRIO	Abs.	17	5	3	2	0	27
	%	63,0	18,5	11,1	7,4	0,0	100,0
GUZTIRA	Abs.	70	13	17	3	1	104
	%	67,3	12,5	16,3	2,9	1,0	100,0

Oharra: informazioa ezin izan da jaso Durangoko kasu batean.


Emakumeen aurkako indarkeria matxista eremu publikoan zein pribatuan adierazten da, eta, sarritan, askoz ikusezinagoa da espazio jakin batzuetan. **Kasu gehienak familiaren eremuan** gertatzen diren arren, beste testuinguru batzuetan ere erregistratu dira; esate baterako, aisian, jaietan, lanean, osasungintzan, espazio birtualean eta kirolean.

INDARKERIAREN ESPAZIOA eta EREMUA %



Oharra: kanpoan utzi dira datuak lortu ezin izan ziren kasuak.

DATUAK PARTEKATZEKO BAIMENA. %



Baimenari dagokionez, **artatutakoen % 39k ez du datuak** beste eragile batzuekin **partekatzeko baimena eman** (37 kasu, gutxi gorabehera).

Erasotzailearekiko harremana dela eta, biktimak lotura sentimentala duen edo izan duen norbaitek eragin du indarkeria matxista, kasu gehienetan. Kasuen % 67,96an erasotzailea

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

biktimaren bikotekidea edo bikotekide ohia izan da. Kasuen % 12,62an, erasotzailea familiako norbait izan zen. Kasuen % 25,52an, ezagun bat, eta % 3,88an, ezezagun bat.

EMAKUMEEN BANAKETA ERASOTZAILEREKIKO HARREMANAREN ARABERA 2024. ABSOLUTUAK ETA %						
		Ezezaguna	Ezaguna	Familiakoa	Bikotekidea/ bikotekide ohia	Guztira
ABADIÑO	Abs.	0	2	0	6	8
	%	0,0	25,0	0,0	75,0	100,0
BERRIZ	Abs.	0	5	1	8	14
	%	0,0	35,7	7,1	57,1	100,0
DURANGO	Abs.	3	5	7	39	54
	%	5,6	9,3	13,0	72,2	100,00
ELORRIO	Abs.	1	4	5	17	27
	%	3,7	14,8	18,5	62,9	100,00
GUZTIRA	Abs.	4	16	13	70	103
	%	3,9	15,5	12,6	67,9	100,0

Oharra: informazioa ezin izan da jaso Durangoko bi kasutan.

Datuek berretsi egin dute indarkeria adin guztietako emakumeek pairatzen dutela, gazteek zein adinez nagusi direnek. Artatutako emakumeen ia erdiak 31-50 urtekoak dira (% 44,3), eta atzetik dituzte 21-30 urtekoak (% 25,61). Datuei beste era batera begiraturik ikusten da 30 urtetik beherakoak artatutako emakume guztien % 37,4 direla, eta % 3,1ek 16 urte baino gutxiago ditu. Emakume zaharrenen multzokoak, 65 urtetik gorakoen multzokoak, % 7,2 dira.

2024AN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEAK ADINAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. ABSOLUTUAK eta %

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
ABADIÑO	Abs.	1	0	2	2	1	1	1	8
	%	12,5	0,0	25,0	25,0	12,5	12,5	12,5	100,0
BERRIZ	Abs.	0	0	7	0	6	0	1	14
	%	0,0	0,0	50,0	0,0	42,9	0,0	7,1	100,0
DURANGO	Abs.	2	6	12	9	15	8	2	54
	%	3,7	11,1	22,2	16,7	27,8	14,8	3,7	100,0
ELORRIO	Abs.	0	2	4	8	2	2	3	21
	%	0,0	9,5	19,0	38,1	9,5	9,5	14,3	100,0
GUZTIRA	Abs.	3	8	25	19	24	11	7	97
	%	3,1	8,2	25,8	19,6	24,7	11,3	7,2	100,0

Oharra: ez da adinari buruzko informazioa jaso zortzi kasutan.

Erasotzaileen adinari dagokionez, gehienak 31-40 urtekoak dira (% 25,0), eta atzetik dituzte 41-50 urtekoak (% 27,6); horrek esan nahi du erasotzaileen % 52,6k 31-50 urte dituztela. Halaber, azpimarratu behar da 30 urtetik beherako erasotzaileak % 27,6 direla. 65 urte baino gehiago dituzten erasotzaileak guztien % 5,3 dira.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

ERASOTZAILEAK ADINAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA 2024AN. ABSOLUTUAK ETA %.

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
ABADIÑO	Abs.	0	1	0	2	1	1	1	6
	%	0,0	16,7	0,0	33,3	16,7	16,7	16,7	100
BERRIZ	Abs.	0	0	1	4	3	0	1	9
	%	0,0	0,0	11,1	44,4	33,3	0,0	11,1	100
DURANGO	Abs.	0	2	13	8	11	9	2	45
	%	0,0	4,4	28,9	17,8	24,4	20,0	4,4	100
ELORRIO	Abs.	0	0	4	5	6	1	0	16
	%	0,0	0,0	25,0	31,3	37,5	6,3	0,0	100
GUZTIRA	Abs.	0	3	18	19	21	11	4	76
	%	0,0	3,9	23,7	25,0	27,6	14,5	5,3	100

Oharra: kasu batzuetan ez da adinari buruzko informazioa jaso, zenbait baliabidek zailtasuna dutelako.

Arreta jaso duten emakumeen jatorriari dagokionez, % 43,3 protokoloari atxikitako udalerriren batekoa da (Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio), eta beste % 10,3 probintziakoa. EAetik kanpo jatorria duten artatutako emakumeen kopurua % x da, eta gehienak EBtik kanpoko herrialdeetakoak dira, % 22,7.

BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK EMAKUMEEN JATORRIAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.

		Udalerrria	Probintzia	Autonomi a-erkidegoa	Herrialde a	EB	EBz kanpo	Guztira
ABADIÑO	Abs.	5	2	0	1	0	0	8
	%	62,5	25,0	0,0	12,5	0,0	0,0	100,0
BERRIZ	Abs.	9	1	0	0	3	1	14
	%	64,3	7,1	0,0	0,0	21,4	7,1	100,0
DURANGO	Abs.	23	7	3	2	4	15	54
	%	42,6	13,0	5,6	3,7	7,4	27,8	100,0
ELORRIO	Abs.	5	0	3	6	1	6	21
	%	23,8	0,0	14,3	28,6	4,8	28,6	100,0
GUZTIRA	Abs.	42	10	6	9	8	22	97
	%	43,3	10,3	6,2	9,3	8,2	22,7	100,0

Oharra: ez da informazioa jaso bederatzi kasutan.

Erasotzaileen kasuan, % 27,8 protokoloa sinatu duten udalerriren batekoa da, eta beste % 26,6 probintziakoa. Erasotzaileen % 34,2 EBtik kanpoko herrialdeetakoak dira.

ERASOTZAILEAK, JATORRIAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. 2024. ABSOLUTUAK ETA %

		Udalerrria	Probintzia	Autonomia-erkidegoa	Herrialde a	EB	EBz kanpo	Guztira
ABADIÑO	Abs.	3	1	1	1	0	1	7
	%	42,9	14,3	14,3	14,3	0,0	14,3	100,0
BERRIZ	Abs.	7	5	0	0	1	1	14
	%	50,0	35,7	0,0	0,0	7,1	7,1	100,0
DURANGO	Abs.	10	14	2	1	1	17	45
	%	22,2	31,1	4,4	2,2	2,2	37,8	100,0

Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

ELORRIO	Abs.	2	1	1	0	1	8	13
	%	15,4	7,7	7,7	0,0	7,7	61,5	100,0
GUZTIRA	Abs.	22	21	4	2	3	27	79
	%	27,8	26,6	5,1	2,5	3,8	34,2	100,0

Oharra: kasu batzuetan ez da adinari buruzko informazioa jaso, zenbait baliabidek zailtasuna dutelako.

Azkenik, azken urteotako arau-aldaketekin bat etorritik, emakume baten kontrako indarkeria gauzatzen den etxeetako seme-alabei buruzko datuak jasotzeko lan egin behar da. Datuak erregistratzeko egungo sistemak ez du aukera ematen indarkeria horren eraginpean egoteagatik kalteak jasan dituzten seme-alaben kopuruari buruzko zifra argirik lortzeko; hala ere, 2022tik aurrera hori zuzentzeko ekintzak jarri dira abian, eta adingabeen kopurua zenbatzen hasi dira.

Datu ofizialek arazoaren zati bat baino ez dute azaleratzen; izan ere, erakundeetara laguntza eske jo ez duten emakumeak ez dira erregistroetan jasotzen.

2024an, 44 adingabe erregistratu dira, eta indarkeria matxista jasaten ari ziren emakumeen etxeko beste pertsona batzuk, emakume horien ardurapean.

Horrenbestez, 2024an, 151 emakume, seme-alaba eta ardurapeko beste pertsona batzuk artatu dira indarkeria matxistagatik udalerrri horietan.

5. 2024AN IDENTIFIKATUTAKO AURRERAPENAK, LORPENAK, ZAILTASUNAK ETA ERRONKAK

Aurrerapenak eta lorpenak	- Sexu-askatasunaren berme osorako 2022ko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa landu da. - Hirugarren sektore sozialarekiko eta tokiko entitateekiko harremana indartu da eta protokoloa espazio horietan hedatu da. - Nahiz eta aldaketak gertatu diren aldi oro, Osakidetzako partaide berriekiko harremanari eutsi zaio. - Koordinazio Tekniko eta Orokorrerako Mahaiak bere errutinarekin jarraitu du urteko koordinazio-espazioetan. - Indarkeria jakin batzuk agerian jarri dira mahai teknikoetan, hobeto heltzeko. - Sexu-indarkeriaren aurrean arreta integrala emateko zentro berriak aurkeztu dira, aintzakotzat hartzeko baliabide berri gisa. - Indarkeria matxistako Durangoko teknikari berria bete-betean sartu da Koordinazio Orokorreko Mahaian eta Durangoko mahai teknikoan eta tokiko mahaian. - Langile teknikariak trebatu dira eta sexu- eta genero-dibertsitateari zein LGTBQ+ pertsonen jasaten dituzten indarkeria eta diskriminazioari buruz gogoeta egin da.
Zailtasunak	- Baliabide batzuek zailtasunak dituzte artatutako emakumeen gaineko datuak emateko. - Zailtasunak eragileen arteko informazio-fluxuan eta komunikazioan. Ondorioz, koordinazioak okerrera egin du. - Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztiak jorratzeko etorkizuneko baliabideen gaineko ziurgabetasuna. - Langile politikoak neurri txikian bertaratu dira trebakuntza-saioetara.
Erronka nagusiak	- Trebakuntzarekin jarraitzea, gure lana hobetzeko beharrezko bide baten gisara. - Informazio-bilketan adingabeen errealitatea hobeto jaso da, baina hurrekin modu integralean esku hartzeko beharra dago oraindik. - Osakidetzarekin lanean jarraitzea, profil berriak ezagutzeko indarkeria matxistaren harira. - Indarkeria matxistaren adierazpideei buruz ditugun datu guztiak sistematizatzea. - Datu gehiago eta hobeak biltzea, politiken eta estrategien formulazioa behar bezala dokumentatzeko, indarkeriei aurre egiteko hartutako neurriak ebaluatzeko eta horien ondorioak zehazteko. - Erreparazio-ekintzak praktikan nola gauzatzen diren sakontzea. - Kasuak hautemateko lanean jarraitzea. - Protokoloa arau esparru berriari egokitzea. - Denboraren eta langile-aldaketen ondorioz, esku hartzen duten erakundeen inplikazioa bertan behera gelditu ez dadin erdiestea.

Durungaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. protokoloa

	- Indarkeria matxistako Durangoko teknikaria protokoloaren dokumentuan txertatzea.
--	--